

UDALAK 2012ko MARTXOAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

BATZORDEKIDEAK:

ALKATEA:

Luis Intxauspe Arozamena jn.

ALKATEORDEAK:

Gloria Mendinueta Yeregi and.

Idurre Conde Santa Cruz and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

ZINEGOTZIAK:

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Jose Ramón Chica Ramirez jn.

Jose Pérez Dominguez jn.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2012ko martxoaren 27an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bilera Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Aitziber Ezkerra Segurajauregi idazkariordea.

KONTU HARTZAILEA:

Antxon Garcia Nadal jn.

IDAZKARIORDEA:

Aitziber Ezkerra Segurajauregi and.

Saioa hasi baino lehen, Alkate-Lehendakariak, dolumin adierazpena helarazten dio udaleko zinegotzi den Maria Otaegi Vélez-i eta bere familiari, senitarteko baten heriotza dela eta.

Andoni Amonarraiz-ek eskerrak ematen ditu bere eta Alderdiaren izenean.

Era berean, Alkate-Lehendakariak, aurreko plenoko akta gai ordenean ez dagoela adierazten du, honen itzulpena egitea falta zelako, hortaz, hurrengo plenorako utziko dela aktaren onarpena.

1.- 2012KO OTSAILAREN 24TIK 2012KO MARTXOAREN 23RA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA. - 2011ko otsailaren 24tik 2012ko martxoaren 23ra bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

- * Alkate jn.
- * Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.
- * Kiroletako delegatu jn.
- * Hezkuntza eta Enpleguko delegatu and.
- * Politika Sozialeko delegatu jn.

2.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK EGITEAGATIK 2012/2013 IKASTURTEAN ORDAINDU BEHARREKO TASEN ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA: "HERNANI" MUSIKA ESKOLA ETA KANTUZ MUSIKA ESKOLA; KULTURA ARLOKO IKASTAROA; UDAL EUSKALTEGIA. - Alkateak gaiari buruzko azalpenak ematen ditu: irizpide bera ez da erabili kasu guztietan. Udal Euskaltegiaren kasuan, matrikularen prezioan, KPI-aren igoera bakarrik planteatu da; askotan esan bezala, guretzako euskara gai garrantzitsua delako, honen erabilera eta ezagutza sustatzea. Beste arloetan berriz, azterketa bat egin da, aztertuz zerbitzuen egoera, ordaintzen diren matrikulak edo tasak... Kantuz Musika eskola eta Biteri Kultur Etxeko ikastaroen kasuan, %10eko igoera planteatzen da. Lehenengo kasuan, Musika Eskolako Kontseiluan bertan aztertu da gaia eta beraien landutako proposamena da; oreka bilatuz matrikula eta kurtso desberdinen artean.

Andoni Amonarraitz (EAJ-PNV) hitza hartu du: Gu abstenitu egingo gara, bai puntu honetan bai hurrengoan ere. Eta jakin nahi genuke, ematen den ikastaro bakoitzarengatik, ikastaroaren kostuaren zenbateko ehunekoa ordaintzen den tasa edo prezio publikoen bidez, ahalik eta daturik errealean izateko, jakin nahi naitugu zerbitzuaren erabiltzaileek zenbat ordaintzen duten eta hernaniar guztiek zenbat ordaintzen dugun..

Aitor Miner (Bildu) hitza hartu du: Musika Eskolan, lehengo urtean, tasekin bildu zena %10a izan zen. "inanciación a tercios" egiten da: tasekin zati bat, Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzekin beste zati bat eta Udaletxeak beste bat. Eusko Jaurlaritza, % 33 horretatik gero eta urrutiago dago, PSOE urtero murrizten ari delako Musika Eskolei ematen dien diru-laguntza, Udalak gero eta gehiago jarri behar duelarik. Honela, lehengo urtean, tasek % 14-15-a eta Udaletxeak % 65a.

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko martxoaren 23an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (Bildu).
- Kontrako botoak: Bat ere ez.
- Abstentzioak: 5 (3 Euskal Sozialistak, 1 EAJ/PNV eta 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik 2012/2013 ikasturtean ordaindu beharreko taseen ordenantza fiskalaren eranskin hauen aldaketa onartzea:

11.- "HERNANI" MUSIKA ESKOLA PUBLIKOA

2012/13 IKASTURTEKO TASAK:

Maila	Irakasgaia	Hernanin erroldatuek	Hernanin gabeek	erroldatu
1	Hastapena	199,36 €	239,23 €	

2	Soinu-tresna (txalaparta ezik)	162,86 €	195,43 €
	Txalaparta	81,43 €	97,71 €
	Talde instrumentala edo abesbatza	67,32 €	80,78 €
	Lengoaia Musikala	162,86 €	195,43 €
	Musika Hezkuntza	81,43 €	97,71 €
	Bigarren soinu-tresna (txalaparta ezik)	230,58 €	276,69 €
	Bigarren soinu-tresna, txalaparta denean	148,75 €	178,50 €
3	Soinu-tresna	178,37 €	214,04 €
	Talde instrumentala edo abesbatza	72,93 €	87,52 €
	Bigarren soinu-tresna	251,70 €	302,03 €
4	Talde instrumentala edo abesbatza	72,93 €	87,52 €

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %50 interesatuak esaten duen kontu korrontetik hartuko zaio, matrikula egin aurretik.
- Beste %50 kontu korrante beretik, urtarrilaren hasieran.

2. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute.

3. Edozein ikastaro edo kalsetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko .Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larraik kurtso erdia baina iraupen lueagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

4.- Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

5.- **Onura fiskalak: Tasaren Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.**

11 b "KANTUZ" MUSIKA ESKOLA

"KANTUZ" MUSIKA ESKOLA. 2012/13 IKASTURTEKO TASAK:

Proposamena: Ikasturte honetan tarifak %10 igotzea da. Horrela geratuko dira:

Hernanin bizi direnak..... 239,47 €
Hernanin bizi ez direnak..... 288,86 €

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordainketa ondorengo eran egingo da:

- %50 interesatuak esaten duen kontu korrontetik hartuko zaio, matrikula egin aurretik.
- Beste %50 kontu korronte beretik, urtarrilaren hasieran.

2. Ikasturtean zehar, ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien prezio osoa ordaindu beharko dute.

3.- Edozein ikastaro edo kalsetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen lueagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

4. Hasitako ikasturtearen lehen hiruhilabetekoan matrikulatzen den ikasleak zerbitzua hartzen hasi denetik egutegia bukatu arte dauden hilabete kopuruaren arabera proportzionalki ordainduko du ordaindu beharreko prezioa.

5.- Onura fiskalak: Tasaren Ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

12.KULTURA SAILEKO IKASTAROAK

2012/2013 ikasturtea

1.- Hernanin bizi direnentzat:

HELDUAK

Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 4 ordu)	232,00 €
Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 3 ordu)	174,00 €
Urria/ekaina (egun 1 astean , 3 ordu)	174,00 €
Urria/ekaina (egun 1 astean, 2,5 ordu)	145,00 €
Urria/ekaina(egun 1 astean, 2 ordu)	114,00 €
Urria/ekaina(egun 1 astean, 1,5 ordu)	85 ,00 €
- 72 ordukoak	124,00 €
- 60 ordukoak	103,00 €
- 40 ordukoak	68,00 €
- 15 eta 30 ordu bitartekoak	53,00 €
- 15 ordu baino gutxiagokoak	29,00 €

HAURRAK (14 urte bitarte)

-Urria/maiatza (3 ordu astean)	112,00 €
-Urria/maiatza (2 ordu astean)	76,00 €
-Urria/maiatza (1, 5 ordu astean)	57,00 €
-15 eta 30 ordu bitartekoak	34,00 €

2.- Hernanin bizi ez diren ikasleek honako kopuru hauek ordainduko dituzte matrikularengatik.

HELDUAK

Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 4 ordu)	303,00 €
Urria/ekaina (2 egun astean, guztira 3 ordu)	230,00 €
Urria/ekaina (egun 1 astean, 3 ordu)	230,00 €
Urria/ekaina (egun 1 astean, 2,5 ordu)	191,00 €
Urria/ekaina (egun 1 astean, 2 ordu)	152,00 €
Urria/ekaina (egun 1 astean, 1,5 ordu)	111,00 €
- 72 ordukoak	160,00 €
- 60 ordukoak	135,00 €
- 40 ordukoak	91,00 €
- 15 eta 30 ordu bitartekoak	67,00 €
- 15 ordu baino gutxiagokoak	35,00 €

HAURRAK (14 urte bitarte)

-Urria/maiatza (3 ordu astean)	145,00 €
-Urria/maiatza (2 ordu astean)	98,00 €
-Urria/maiatza (1, 5 ordu astean)	75,00 €
-15 eta 30 ordu bitartekoak	44,00 €

Tarifa aplikatzeko arauak:

1.- Ordainketa ondorengo era honetan egin daiteke:

- ordainketa bakarra matrikula egin aurretik, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
- edota, bi ordainketa:
 - a) ordainketa osoaren %50a matrikula egin aurretik, interesatuak ematen duen kontu korrontean.
 - b) beste %50a otsailaren hasieran, interesatuak ematen duen kontu korrontean.

2.- Ikastaroa hasiz gero ikasle guztiek egindako matrikularen arabera dagokien tarifa osoa ordaindu beharko dute. Edozein ikastaro edo kalsetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larraik kurtso erdia baina iraupen lueagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

3.- Ikasturte hasieran matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:

3.1 Ikasleren bat lehendabiziko astean lanean hasten bada, baldin eta lanean hasi den enpresaren egiaztagiraren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).

3.2 Lehendabiziko astean ikasleak gaixotasunen bat dela eta baja ematen badu, aurreko puntuan egindako salbuespen bera egingo da, baina medikuaren egiaztagiri ofiziala aurkeztu beharko du.

3.3 Ikasleak aukeratutako ordutegian taldea osatuko ez balitz.

4.- Ikaslea ikastaroa beranduago hasi beharrean badago —bere errua ez den arrazoiren bat tarteko—, dagokion matrikula kopuruaren zati proportzionala ordainduko du.

5.- Onura fiskalak: ordenantzaren 7. artikulua aplikatuko da.

13.- UDAL EUSKALTEGIA

2012/2013 ikasturterako

AURREZ AURREKO IKASTAROAK ETA AUTOIKASKUNTZA

a) Hauek izango dira 2012/2013 ikasturtean aplikatuko diren tarifak:

- Ikastaldi osoak, 2012ko irailetik/urritik 2013ko ekainera arte astelehenetik ostegunera, bi ordu eta erdi egunean, 456,85 €.
- Ikastaldi osoak, 2012ko irailetik/urritik 2013ko ekainera arte, astean 6 ordu: 274.- €.
- Autoikaskuntza ikastaldi osoak, 2012ko iraila/urritik 2013ko ekainera arte: 456,85 € .

Beste modulu guztietako kostua 1,43 €/orduko izango da (ikasmateriala barne).

b) Ikasturtea bigarren edo hirugarren hiru hilabetekoan hasten dutenek, epe horri dagokion diru kopurua ordainduko dute.

c) Tarifa aplikatzeko arauak:

- Matrikularen ordainketa honela egingo da:
 1. Matrikula egiteko momentuan 30 € ordainduko dira.
 2. Klaseko lehenengo astean %50 osatzeko falta den kantitatea sartuko da horretarako ezartzen den kontu korrontean.
 3. Ikastaldia hasi eta bi hilabeteko epean gelditzen den beste %50 sartuko da kontu horretan bertan.

Edozein ikastaro edo klasetan baja hartu behar dela jakinaraziz gero ez dira kuotak itzuliko edo ezabatuko. Honen salbuespena izan daitezke norberaren gaixotasun larriak kurtso erdia baina iraupen lueagokoen kasuak. Salbuespen hau Tokiko Gobernu Batzarrak erabakiko du, eta horretarako ezinbestekoa da agiri-medikuak frogatzea alegatutako gaixotasuna

- Ikasturte hasieran matrikula honako kasu hauetan itzuliko da:
 1. Ikasleren bat lehendabiziko astean lanean hasten bada, baldin eta lanean hasi den enpresaren ziurtagiriaren bidez egiaztatzen badu (enpresaren zigilua beharrezkoa da).
 2. Lehendabiziko astean ikasleak, gaixotasunen bat dela eta, baja ematen badu, aurreko puntuan egindako salbuespen bera egingo da, baina medikuaren egiaztapiri ofiziala aurkeztu beharko du.

3. Euskaltegiaren funtzionamendutik eratorritako kasuak direla medio, bi kasu hauek:
- Ikasleak nahi duen ordutegian talderik osatu ez bada eta beste ordutegi batean ezin badu.
 - Ikaslea maila batean hasi ondoren, beste maila batean egotea komeni zaiola konturatu bagara, eta ordutegi horretan dagokion mailako talderik ez badauka edota beste aukerak baztertzen baditu, ordaindutakoa itzuli egingo zaio.

XEDE BEREZIETARAKO ON-LINE IKASTARO MISTOA

a) Osasun arloko profesionalentzako ikastaro mistoa..

Bi osagai izango ditu ikastaro honek:

1. Sarean egitekoa, 25 ordukoa. Ondoko hauek dira tasak, taldeko ikasle kopuruaren arabera:

Ikasle kopurua	Tasa ikasleko
8-16 ikasle	299,60 €
4-7 ikasle	375,30€
2-3 ikasle	574,55 €
1 ikasle	1.237,50 €

2. Aurrez aurrekoa:

2.1 2 orduko 6 saio, 12 ordu: 872,15 € taldeko.

2.2 5 orduko 6 saio, 30 ordu: 2.227,65€ taldeko

2.- Aurreko erabakia jendaurrean jartzea 30 laneguneko epean, izan ditzakeen erreklamazio eta oharra jasotzeko.

3.- Hartutako erabakia behin betikoa izango da, erabaki berri bat hartu beharrik gabe, jendaurrean jartzeko arazko epea igaro eta inolako erreklamazio eta oharrik egin ez baldin bada.

4.- Alkateari tributuak arautzen dituen erabakiaren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

3. ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK EGITEAGATIK 2012/2013 IKASTURTEAN ORDAINDU BEHARREKO PREZIO PUBLIKEON ORDENANTZA FISKALA ALDATZEKO PROPOSAMENA: HAUR ESKOLAKO JAN GELA; EMAKUMEENTZAKO JABETZE IKASTAROK. - Alkateak gaiari buruzko azalpenak ematen ditu: Haur Eskolaren kasuan KPIaren igoera proposatu da eta Emakumeentzako Jabetze Eskoletan mantendu egin da, eskola hauek beste udal batzuekin antolatzen dira eta elkarrekin ezartzen dira prezioak

Jose Ramón Chica-k (PSOE) hitza hartu du: Noizbait eskatu dut informazioa; emakumeentzako jabetze eskolei dagokienez, zenbateko ehuneko estaltzen da prezio hauen bidez?

Aitor Miner (Bildu) hitza hartu du: datu hori ez daukagu baina lau herrien artean adosten diren tasak dira.

Aztertu da Ogasun eta Ondare Batzordea-Kontuetarako Batzorde bereziak 2012ko martxoaren 23an emandako irizpena.

Eсандakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- Aldeko botoak: 9 (Bildu).
- Kontrako botoak: Bat ere ez.
- Abstentzioak: 5 (3 Euskal Sozialistak, 1 EAJ/PNV eta 1 H1!).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

1.- Zerbitzuak eskaintzeko edo jarduerak burutzeagatik prezio publikoak arautzeko ordenantzan 3 eta 4. eranskinen 2012-2013 ikasturterako prezio publikoa onartzea, ondoko testua delarik:

3.-HAUR ESKOLAKO JANGELA ZERBITZUA: 2012/2013 ikasturtea

1.- Proposamena: ikasturte honetan tarifak %2,4 igotzea

AZALPENA

UMEENTZAKO TARIFAK

EUROAK

Bazkariaren tarifa, erabiltzaile eta hileko	100,55
Askariaren tarifa, erabiltzaile eta hileko	22,11
Bazkari bakoitzak	6,14
Askari bakoitzak	1,89

HELDUENTZAKO TARIFAK

Bazkariaren tarifa, erabiltzaile eta hileko	121,08
Bazkari bakoitza	7,27

11/1989 Foru Arauaren 47. artikulua 2. idatz zatia kontuan hartuta, umeen hileko tarifei hainbat murrizpen aplikatu dakizkioke, familia unitatearen diru-sarreraren arabera, ondoko taula honetan azaltzen den moduan:

Familia unitateari dagozkion urteko diru-sarrerak (per capita) Ingresos anuales correspondientes a la unidad familiar (per capita)	Reducción Murrizketa %	Tarifa Comida Bazkari tarifa €	Tarifa Merienda Askari tarifa €
0,01 € eta 14.275,15 € arteko diru sarrerak Ingresos correspondientes entre 0,01 € y 14,275,15 €	100	0	0
14,275,16 € eta 17.670,82 € arteko diru sarrerak Ingresos correspondientes entre 14.275,16 € y 17.670,82 €	90	10,05	2,21
17.670,83 € eta 21.205,19 € arteko diru sarrerak Ingresos correspondientes entre 17.670,83 y 21.205,19 €	80	20,11	4,42

21.205,20 € eta 25.426,75 € arteko diru sarrerak Ingresos correspondientes entre 21.205,20 € y 25.426,75 €	40	60,33	13,26
25.426,76 € eta 36.641,62 € arteko diru sarrerak Ingresos correspondientes entre 25.426,76 € y 36.641,62 €	10	90,49	19,89
36.641,63 € baino gehiago Ingresos superiores a 36.641,62 €	0	100,55	22,11

Murrizpenak aplikatzeko baldintzak:

- 1.- Udaleko ogasunean inolako zorrik ez izatea.
- 2.- Tasaren subjektu pasiboak, haur eskola zerbitzuaren haur onuradunen guraso, tutore edo legezko ordezkariak, Hernanin erroldatuak egotea.
- 3.- Aurkeztu beharreko agiriak:
 - 3.1 Eskaera orria eta bizikidetzatza unitateko kide guztien diru-sarrera eta ondasunen zinpeko aitortpena.
 - 3.2 Familia unitatearen diru-sarreraren frogagiriak:
 - a) Pertsona fisikoen errentaren gaineko azken ekitaldiko zerga-aitortpenaren fotokopia edo, aitortpenik egin beharrik ez bada, Foru Ogasunaren egiaztagiria, egin beharrik ez dela adierazten duena.
 - b) Errenta aitortpena egin beharrik ez bada, enpresaren ziurtagiria (10-T), edota langabeziagatik edo bestelako kontzeptuengatik jasotzen diren prestazioen ziurtagiriak
 - ©) Ekonomi jardueretatik datozen diru-sarreraren kasuan, errenta aitortpenarekin batera dagokion eranskina aurkeztu behar da (PFEZaren 109 inprimakia, 6 edo 5 zk.), jarduera etekinak zehazten dituen, eta ondarearen eranskina ere bai (PFEZaren 109 inprimakia, 7 zk).
 - d) Interesgarri jotako beste edozein agiri.

Tarifaren gaineko murrizpena aplikatze aldera PFEZaren aitortpena edo, INSS eta INEMeko datuak ohartaraziz, diru-sarrerak egiaztatze bestelako agiririk aurkeztu ez duten interesatuek ez dute inongo murrizpenik izango.
- 4.- Langile autonomoek, diru-sarreraren arabera tarifaren zein murrizpena aplikatu behar zaien kalkulatzeko, gutxieneko diru-sarrera maila bat errekonozituko zaie, **21.205,20 eta 25.426,75** €ko tarteari dagokiona izan daitekeena.
- 5.- Ezingo dute murrizpenik lortu beren ondareari buruz ondorengo arau hauek betetzen ez dituzten eskatzaileek:
 - a) Ondasun higiezinak:

Elkarbizitza edo familia unitatearen hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar ehun eta berrogeita hamar mila euroko muga (150.000 €) Familia ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 165.000€

Famili ugarien kasuan hiri-finken katastro-balioen baturak ez du gainditu behar 165.000 €. Ondare balio hau kontuan hartu behar bada bakarrik aplikatuko da artikulu honen 2c) apartatuak ezarritako hobaria, hau da, familia ugarietzako hobariak eta diru-sarrereren taula.

Famili unitateak ezin du hiri ondasun baten baino gehiagoren jabe izan (jabetza soila, gozamen-eskubidea, barne). Dena den, arau honek ondoko salbuespenak izango ditu:

1. Ondasunak badira ohiko etxebizitza eta eraikin edo etxebizitza multzo berean kokatutako garaje bat edota trasteleku bat, edo etxebizitzatik hurbil dagoen garaje edota trasteleku bakarra.
2. Ondasunak badira ohiko etxebizitza (garaje eta trasteleku bana) eta lokal komertzial bat, eta lokal honetan elkarbizitza edo famili unitatearen kideren batek bere jarduera ekonomikoa garatzen badu. Kasu honetan interesatuak behar bezala frogatu beharko du bere jarduera ekonomikoa garatzeko lokala dela.

Lokala biltegia bada, interesatua langile autonomia bada eta ekonomi jardueren gaineko zergan horrela alta emanda baldin badauka, ez da kontuan hartuko lokal hau.

3. Ondasunak bi etxebizitza badira, bata ohikoa izanda, eta besteari buruz jabetza soila edukita, eta gozamen-eskubidea indarrean badago, (gozamenduna etxebizitza honetan erroldatuta egonda ere) eta 150.000 €ko muga gainditzen ez bada, edota 165.000 €koa familia ugarien kasuan, ez da kontuan hartuko bigarren etxebizitza.

b) Ondare higigarriak:

b-1) Balore higigarriak:

- 1) Familia unitateko ondarea osatzen duten tituluak, baloreak, inbertsio-fondoetako partaidetzak, diru erraz bihur daitezkeen kreditu-eskubideak eta familiako edozein kideren esku dagoen banku-gordailuetako eskudirua, horien zenbatekoak hogeita lau mila euroko (24.000 €) muga gainditzen duenean. Edonola ere, aztertu beharko da ea famili ondarearen osagai bakarra diren ala lanetik botatzeagatik emandako kalte-ordainetik datozen.
- 2) Errenta aldakorreko tituluak burtsan duten kotizazioaren arabera baloratuko dira. Ez badira kotizatzen ari, berriz, horien kontabilitate balioa hartuko da kontuan.

b-2) Ibilgailuak:

1.- Famili unitatearen kide bakar batek ere ezin du izan 13,99 zaldi fiskal edo gehiagoko potentzia duen trakzio mekanikoko ibilgailu baten jabe.

Hauek ez dira kontuan hartuko:

- Lanerako behar-beharrezkoak diren ibilgailuak. Kasu horietan, hala dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu behar da.
- %65eko edo gehiagoko elbarritasun maila duten pertsonen gidatzeko egokitutako ibilgailuak, elbarriarenak berarenak baldin badira.
- Aulki gurpilduneko elbarritasuna duten pertsonak eramateko erabiltzen diren ibilgailuak, zuzenean edo egokitu ondoren.

2.- Dena den, famili unitateak ezin du ibilgailu baten baino gehiagoren jabe izan, aurreko idatz zatian sartutakoak barne. Hala ere, ez dira kontuan hartuko kamioak,

traktoreak, trakzio mekanikoko ibilgailuek eramandako atoiak eta erdi-atoiak, eta autobusak.

6.- Ondare-osagaien pilaketa.

Familia unitateak aurreko ataletan azaldutako ondare-osagai horietatik hainbat dituenean, dagokion mugarekiko ondare-osagai bakoitzaren balioak hartzen duen ehuneko kalkulatuko da. Horrenbestez, eskatutako salbuespen, hobari edo murrizpena ez da emango ehuneko horien batura ehun baino gehiago bada.

7.- Merkatal, industri eta lanbide-jarduerak.

Era berean, ez da eskaera hori onartuko familia unitateko kide kontagarriren bat edozein jarduera ekonomikoren jabe izanik, dagokion ekitaldian aipatu jarduerari egotzitako fakturazio-bolumenak ehun eta berrogeita hamabost mila euroko (150.000 €) muga gainditzen badu.

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK

1.- Zerbitzua eskatzen duena da prezio publiko hau ordaintzera beharturik dagoena.

2.- Zerbitzua lehen hilabetetik erabiltzen duten onuradunek hamaika ordainketa oso egin beharko dituzte, eta ordaindu beharreko kopurua diru-sarreraren taula aplikatzearen ondorioz kalkulatuko da. Ordainketak hilerokoak izango dira, zerbitzua emateko urtero onartzen den eskola egutegiaren arabera.

Salbuespena: jangelari utzi beharra dakarren ezinbesteko arrazoia, eta behar bezala justifikatua denean, Udalak erabakiko du. Oporretan egotea ez da ezinbesteko arrazoia. Hilabete hasi baino lehen jakinarazi eta justifikatu beharko da.

3.- Edozein aldaketa (jangela zerbitzua eskatu, ordutegia aldatu, baja eman) idatziz egin beharko da, udaletxeak horretarako dituen eskabide orriak beteaz eta behar bezala justifikatuaz. Aldaketa hauek eskatzeko azken eguna hilabete bakoitzaren 25a izango da.

4.- Egokitze kasuan, egokitzapena 2 astekoa denez, epe hau ez da ordainaraziko. Epe hau bukatu ondoren denei zerbitzua ordaintzeko eskatuko zaie.

5.- Jangelako umeen eta helduen kuotak, lan arazoetan eta haurra gaixotzen den kasuetan, murriztu ahal izateko, medikuak, horretarako dagoen mediku orria bete beharra du eta orri hori entregatua izan beharko da. Medikuen eskaera orri hauetariko bakoitzak aste baterako soilik balio du eta beraz, haurra gaixo dagoen aste bakoitzeko orri bat entregatu beharko da. Murrizpena %25ekoa izango da haurra gutxienez 5 egun jangela erabili gabe egon bada. %50ekoa, bi astez joan ez bada eta %75ekoa hiru astez joan ez bada. Medikuen ziurtagiri hauek, hurrengo hilabetea bukatu aurretik hilabete bakoitzaren 30a baino lehen aurkeztu beharko dira. Behin data hau pasatzean, murrizpena ez da aplikatuko.

6.- Tarifa ordaintzeko, plaza eskatzerakoan ezinbestez eman behar da kontu korrontearen zenbakia, eta zenbaki horren bitartez udaleko zerbitzu ekonomikoek dagokion tarifa kobratuko dute.

7.- Jangela erabiltzeko zerbitzuaren eskaera, ordutegiaren aldaketa eta jangelan baja ematea, Udaletxean egin beharreko tramiteak dira. Berdin, medikuen agiriak, Udaletxean entregatu behar izango dira, aipaturiko epeen barruan.

4. JABEKUNTZA ESKOLA. PRESTAKUNTZA IKASTAROAK.

Tarifa ezartzeko arauak:

1. Ordu bat: 1€

TARIFAK APLIKATZEKO ARAUAK:

1. Matrikularen ordainketa matrikula egiteko epealdian egingo da, Udalaren Kontu Korrontean.

2.- Alkateari tributuak arautzen dituen erabakiaren eta ordenantzen testuakategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

4.- SUSTAPEN EKONOMIKO ETA ENPLEGU GAJETAN ESKUALDE MAILAKO LANKIDETZARAKO PROTOKOLO NAGUSIA. - Alkateak gaiari buruzko azalpenak ematen ditu: Buruntzaldean, eta osatzen dugun herrien artean, Garapen Agentzia baten sorrerako protokolo bat onartzea proposatzen da, enplegua sustatzeko, ekonomi arloa aktibatzeke.

Estefanía Morcillo (PSE): Ongi deritzogu lan ildo hori hartzeari, eskualdea osatzen dugun udalerrien arteko lankidetzari, baina oraingoz abstenitu egingo gara, protokoloa zertan zehazten den ikusi arte. Aztertu da Hezkuntza eta Enplegu Batzordeak 2012ko martxoaren 23an emandako irizpena.

Esandakoa kontuan hartuta, Alkate jaunak irizpenaren inguruko bozketa egin du. Hona emaitza:

- Aldeko botoak: 11 (Bildu, 1 EAJ/PNV eta 1 H1!).
- Kontrako botoak: Bat ere ez.
- Abstentzioak: 3 (Euskal Sozialistak).

Horiek horrela, emandako botoak ikusita, hau erabaki da:

- "Sustapen ekonomiko eta enplegu gajetan eskualde mailako lankidetzarako protokolo nagusia" onartzea.

5.- "HERNANIKO BILDU" UDAL TALDEAREN MOZIOA, ESTATUKO GOBERNUAREN LAN ERREFORMARI BURUZ. - Alkate-lehendakariak adierazten du, hurrengo bi puntuak, lan erreformari buruzkoak direla eta EAJak ere aurkeztu duela beste idatzi bat, eta gure proposamena da, metodologikoki, hirurak bozkatzea.

Andoni Amonarraitz (EAJ-PNV) hitza hartu du: Nik Alderdi Sozialistaren eta Bilduren mozioak babestuko ditut, ez da beharrezkoa EAJrena bozkatzea Bilduk mozioaren hirugarren puntua onartzen badu, Bilduren mozioan beste puntu bat gaineratzea baita, azken batean hiruek muina berdina dute-eta.

Alkate-Lehendakariak: puntua aztertuta, ez gaude ados esaten denean politika eraginkorren eskumena jasotzearekin. Gure analisia da Euskal Herriak bere autonomia behar duela esparru sozio-ekonomikoaren antolaketan. Ez zaigu iruditzen, gaur egungo marko juridikoan, eskumenak jasotzea bidea denik, iruditzen zaigu, hori baino haratago, marko juridiko berri baten eta eskumen propioak arlo sozioekonomikoan eduki beharko genituzkeela, eta horregatik ez dugu jasoko gure mozioan.

Estefanía Morcillo (PSE) hitza hartu du: Lan erreformaren inguruan denok antzeko kritika-espíritu dugunez, logikoena zen Bozeramaile Batzordea deitzea eta testu bakar bat adosten saiatzea, testu bakarra ateratzeko aukera handiak baitzeuden. Zuen mozioari dagokionez, puntu askorekin ados egon gintezke, baina ez dugu testua osorik babesten. Hortaz, abstenitu egingo gara, eta bakarrik guk aurkeztutakoa babestuko dugu.

Bera, PNVk berea mantenduta, Alkate-lehendakariak hiru mozioak banan-bana irakurri eta bozkatzeari proposatzen du.

Lujanbio andreak (Bildu) mozio hau irakurri du:

“Hernaniko Bildu” udal taldearen mozioa, Estatuko Gobernuaren lan erreformari buruz.

MOTIBAZIOA

Otsailaren 11n, Espainiako Erresumako Gobernuak lan-merkatuaren erreformarako Dekretua argitaratu zuen, Estatuaren Aldizkari Ofizialean. Erreforma hori langileen eskubideen aurkako eraso bortitza da. Langile kopurua igotzeko aitzakiaren azpian, erreformaren benetako asmo bakarra ezkututzen da: soldatak eta kaleratzeagatik kalte-ordainak murriztea.

Kaleratzeko unean langileak dituen eskubideak muturreraino murriztu dira: joan zen mendeko baldintzetara itzuliz, Mariano Rajoyren taldeak doako kaleratze askea berrezarri du kontratuko lehen 12 hilabeteetarako, ia enpresa guztiek, % 99,23k zehazkiago, erabili ahal izango dutena. Hori gutxi balitz, Erresumako Gobernuak beste pizgarri bat eman nahi izan die enpresaburuei kontratu berri horren harira, kontratu hori indartzeko hobariak emango baititu. Ildo beretik, gainerako kontratuak ere murriztu egin dira, urte bakoitzeko 45 eguneko kalte-ordaina desagertu egin baita, urte bakoitzeko 20 eguneko kalteordaineko kaleratzea orokortzearekin batera.

Erreforma horrek ezerezean utzi nahi du negoziazio kolektiboaren bitartez orain artean lortutako gutzia. Horretarako, langileen ordezkariak eskuak lotu dizkie patronalaren aurrean: enpresa-hitzarmenei lehentasuna emango zaie sektore-hitzarmenen aurretik, ultrajarduera bi urtera bakarrik mugatu da, eta, hori gutxi balitz, enpresek hitzarmena bertan behera uzteko aukera izango dute, hitzarmena indargabetuta utzita. Gainera, enpresaburuek langileen lan-baldintzak nahierara aldatu ahal izango dituzte, ordutegia, kokapen geografikoa edota soldata aldatuz.

Erreforma ez da horretan geratuko, ordea. Gazteei ere eraso egingo die beste behin, batetik, gazteentzako prestakuntza-kontratua 33 urtera arte luzatuko duelako, 481€-ko soldatarekin, eta, bestetik, enpresei gizarte-kotizazioak barkatuko dizkielako. Bestetik, erreformaren eraginez, langileak laneratzeko kudeaketa pribatizatu egin liteke, zeregin hori Aldi Baterako Laneko Enpresen esku utzita.

Argi dago Euskal Herriko langileek ez dutela erreforma hori begi onez ikusten, inondik inora. Horregatik, argi eta garbi aldarrikatu behar dugu Euskal Herriko gizarte- eta ekonomia-politikak erabakitzeke dagokigun eskubidea, eta behar-beharrezkoa dugu eskubide hori baliatzeko tresnak berehala eskuratzea. Gure lan-eskubideak defendatzeko bide bakarra delako.

Aurreko gutzia kontuan hartuta, MOZIO hau aurkeztu nahi dugu, HERNANIKO Udaleko OSOKO BILKURAK eztabaidatu eta onar dezan:

- 1.- HERNANIKO UDALAK lan-erreforma salatu nahi du. Enpresa-kudeaketa eskasaren eta ekonomia-eredu okerraren ondorioen zama gutzia langileen bizkar gainean utzi nahi duelako.

- 2.- HERNANIKO UDALAK Espainiko Erresumako Gobernuari lan-erreforma lehenbailehen indargabetzea eskatzen dio.
- 3.- HERNANIKO UDALAK Lan Harremanen Euskal Esparrua indarrean jartzea eskatzen du, lan-merkatua arautu behar duten legeak erabakitzeko aukera euskal herritarroi emango diona.
- 4.- HERNANIKO UDALAK herritarrei dei egiten die martxoaren 29an lan-erreformaren aurka deitutako Greba Orokorrean parte har dezaten.

Mozioa bozkatu da ondorengo emaitzarekin:

- * Aldeko botoak: 11 (9 BILDU, 1 EAJ-PNV eta 1 H1!).
- * Kontrako botoak: Bat ere ez.
- * Abstentzioak: 3 (3 EUSKAL SOZIALISTAK).

Beraz, emandako botoak ikusita, irakurritako mozioa onartu egin da.

6.- “HERNANIKO EUSKAL SOZIALISTAK” UDAL TALDEAREN MOZIOA, PPKO GOBERNUAREN LAN ERREFORMARI BURUZ. Estefanía Morcillo Cerdan and.ak “Hernaniko Euskal Sozialistak” aurkeztutako mozioa irakurri du:

“Alderdi Popularra, krisi ekonomikoa aitzakia hartuta, jardun politikoan “dena balekoa” izateko ahaleginetan dabil, eta lortu ere lortzen ari da.

Oposizioan zeudelarik beren ahaleginaren zati handi bat erakunde politiko nahiz judizialak erasotzeko erabiltzen bazuten ere, orain, gobernuan egonda, eta krisia aitzakia harturik, beren bermatzaile direnen eskubide eta askatasun zibilen aurkako erasoari ekin diote.

30 urte behar izan dira eskubide eta askatasun horiek lortzeko. Beraiek, aldiz, hilabete batean desgerrarazi dituzte. Lan erreforma honen bidez suntsitu egin dute auziei konponbidea bilatzeko eta lan harremanak bideratzeko funtsezkoa den zutabea: negoziazio kolektiboa.

Neurri gogorrenetako batek negoziazio kolektiborako eskubideari eragiten dio, hitzarmen kolektiboen aurreraeragina bertan behera uzteko aukera ematen duelako, hots, hitzarmen kolektibo bat denuntziatu eta bi urte igaro ondoren beste hitzarmenik adostu ez bada edo laudorik eman ez bada, hitzarmenak indarraldia galdu eta goragokoa aplikatuko litzateke, egonez gero. Horrek kolpe batez ezabatzen ditu langile eta enpresarien artean orain arte lortutako hobekuntza guztiak.

Neurri hori, gure iritziz, gogorra eta agresiboa da, eta langileek negoziazio kolektiboko prozesuetan izan dezaketen tokia desegituratzen du.

Erreformaren nondik norakoak aztertu besterik ez dago ondorio hau ateratzeko: enpresako ordezkariak, denbora alde dutela jakinik, negoziazio kolektiboa estutu dezakete langileek hitzarmen kolektiboak beheranzko baldintzekin berri ditzaten, Damoklesen ezpataren presiopean, bi urtean hitzarmen berria adosten ez bada goragokoa aplikatuko zaielako (beti ere baldintza txarragoekin) edo, goragoko hitzarmenik ez badago, zuzenean lanbide arteko gutxieneko soldata aplikatzeko aukera egongo litzatekeelako, hitzarmen berria soldata-zoru horretatik abiarazteko.

Ekintzaileei laguntzeko kontratu mugagabeari dagokionez, bestalde, urtebeteko probaldia azpimarritu beharra dago. Horrek esan nahi du langilea urtebetez lanean jardun ondoren enpresariak inolako

arrazoirik eman gabe kalera dezakeela, eta kalte-ordainik gabe; probaldia ez duela gainditu besterik ez du esan behar.

Alderdi Popularreko gobernuak enplegua sortzeko ez, baizik eta lan merkatua ezegonkortzeko balio-ko duen neurritz kanpoko erreforma bidegabe bat eginez erantzun dio sindikatuek erakutsi duten ardurari.

Enplegua sortzeko egin behar dena da jarduera ekonomikoa sustatu eta bultzatu, ez lan eskubideak murriztu. Erreforma honek oso ukituta utzi du Gizarte Estatua eta gure lan harremanen flotazio-marra erasotzen du, negoziazioa adostasunera iristeko lehentasun-bide gisa baztertzeko duelarik.

Horregatik, Euskal Sozialisten Udal Taldeak ondoko puntu hauek aurkeztu ditu osoko bilkuran onartu daitezkeen:

- 1.- Udaltzako erabat baztertzeko estatuko gobernuak 3/2012 Errege Lege-Dekretuaren bidez lan-merkatuaren erreformarako onartutako neurriak, atzeragarriak eta bidegabeak direlako eta ez dutelako enplegua sortzeko balioko, baizik eta alderantziz, enplegua suntsitzeko eta lan baldintzak okertzeko.
- 2.- Udaltza honen iritziz hitzarmen kolektiboen aurreraeragina ezabatzeko aukera izatea lan baldintzak arautzeko iturri nagusia den negoziazio kolektiboaren aurkako eraso da.

Mozioa bozkatu da ondorengo emaitzarekin:

* Aldeko botoak: 5 (3 EUSKAL SOZIALISTAK, 1 EAJ-PNV eta 1 H1!).

* Kontrako botoak: Bat ere ez.

* Abstentzioak: 9 (BILDU).

Beraz, emandako botoak ikusita, irakurritako mozioa onartu egin da.

“Hernaniko EAJ/PNV” udal taldearen mozioa, PPko Gobernuaren lan erreformari buruz.-

“HERNANIKO EAJ/PNV” udal taldeak aurkeztutako kontra-mozioa bozkatzea onartu du Alkate-Lehendakariak. Andoni Amonarraz Gómez jn.ak irakurri du honako mozioa:

“Lan merkatuaren erreforma 3/2012 ELDaren barruan dago, eta berarekin dakar atzera egite larria, langileen oinarritzko eskubideak murrizten ditu, eta enpresari eta langileen arteko harremanak desorekatzen ditu. Testu honekin, enpresariari ahalmen handiagoak ematen zaizkio langilearen txarrerako, eta azken hau ziurgabetasun eta babesgabetasun handiagoan geratzen da. Proposamen honek are gehiago urruntzen du lan merkatuaren arautzea, flexisegurtasun eredu arrakastatsuetatik.

Lanpostuen prekarizatzek ez du lehiakortasun handiagoa eragingo, erreforma gaizki enfokatuta dago. Lehiakortasuna ez da lan baldintzak murriztearekin, soldata eta langileen kaleratzea merkatzearekin lortzen; lehiakortasuna eredu produktiboaren aldaketatik sortarazi behar da, pertsonen prestakuntza eta birziklapenaren aldeko behin betiko apustutik, oreka eta balio erantsi handiagoa eta I+G+B kontzeptuan inbertsio handiagoa egitea ekarriko duen aldaketatik.

Erreforma honek oztopatu egiten ditu Euskadin arautzeko ditugun gaitasunak eta gure erabaki esparrua. Negozioaketa kolektiborako eredu zentralizatzailea sustatzen du, autonomiako lan harremanetarako esparruari eraso eginez eta euskal errealitate sindikalaren berezitasunak eta autonomi eremuko lanbide arteko hitzarmen eta akordioak kontuan hartu gabe.

Era berean, eraso egiten zaie Euskadik enplegurako politika eraginkorren inguruan dituen eskumenei. Lege Dekretuak enplegu eta Lanbide Heziketa arloan baliogabetu ziren arau asko berpizten ditu, eta orain, derrigorrez bete beharrekotzat aurkezten zaizkigu. Era honetan, de facto hutsik geratzen da enplegurako politika aktiboen transferentziak zuen eduki garrantzitsua.

Halaber, ELDak ere euskal autogobernuari eragiten dio zergen inguruko euskal autonomia errespetatzen az delako, lan politikaren partetzat jo ezin diren pizgarriak ezartzen dira, Foru Aldundien eskumeneko zerga politikako tresna diren neurrian ikusi beharrean.

Arestian azaldutakoagatik guztiagatik, EAJ-PNVren Udal Taldeak Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onartzeko aurkezten du honako

MOZIOA

- 1.- Hernaniko Udalak 3/2012 Erret. Lege Dekretu barruan dagoen lan erreformaren kontrako gaitzespena adierazten du, lehiakortasuna irabazteko helburua duela ezartzen duen arren, lan merkatuaren arautzea modifikatzen duelako eta lan baldintzak eta soldatak baliogabetu eta narriatzen dituelako.
- 2.- Hernaniko Udalak lan harremanetarako marko autonomia exijitzen du, Euskadin adostutako eta onartutako kontzertazioa, elkarriketa soziala eta lan araudi propioa egiteko aukera ahalbidetuko duena.
- 3.- Hernaniko Udalak enplegurako politika eraginkorren eskumena osorik transferitzea exijitzen du eta zerga eta tributu politikak ez eragozte; honek ahalbidetuko du Euskaditik bertatik enplegua sustatzeko behar diren neurriak garatzea, gure berezitasunak kontuan izanik.

Mozioa bozkatu da ondorengo emaitzarekin:

* Aldeko botoak: 2 (1 EAJ-PNV eta 1 H1!).

* Kontrako botoak: 9 (BILDU).

* Abstentzioak: 3 (EUSKAL SOZIALISTAK).

Beraz, emandako botoak ikusita, irakurritako mozioa ez da onartu.

7.- EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA, LAIKOA ETA EUSKALDUN BATEN ALDEKO MOZIOA. - Alkateak mozio honi buruzko azalpenak eman ditu: Hezkuntza Sistemaren antolaketa dela eta, hainbat gurasok aukeratutako heziketa ereduaz ezin matrikulatu diren haurrak daudela eta guraso talde batek aukeratzeko mozioa "Hernaniko Bildu" udal taldeak ekarria gai ordenera.

Guraso batek mozioa irakurri du:

"Hernanin eskola publiko laiko eta euskaldunaren alde.

Iaz bezala aurten ere Hernaniko hainbat haurrek ez dute Euskal Eskola Publikoan matrikulatzeko aukerarik izango. Horretaz gain, hamarna dira beraientzat gurasoek aukeratu duten heziketa eredu ukatua izan zaien haurrak. Arrazoiak? Hernaniko herrian ez dago hezkuntza eskaria asetuko duen baliabiderik.

4 ikastetxe publiko izan arren, Hernaniko herritarrok ezin ditugu gure haurrak Euskal eskola publikoan hezi, are gutxiago beraientzat pedagogikoki egokiena iruditzen zaigun ikastetxean matrikulatu. Jaurlaritzako Hezkuntza sailak hala erabaki du eta bere erabakia muturreraino eramanez, erlijio zehatz baten ereduari oinarritzen den itunpeko ikastetxe pribatu batean matrikulatzeko aukera esaini digu. Alternatiba erakargarria benetan! Ez liko ezta publiko ere!.

Aurten guri egokitu zaigu arazoa pairatzea. 20 haur geratu dira egindako aukeratik kano, horietatik 6/7 eskola publikoaren aukeratik kanpo. Iaz, 30 izan ziren egin zuten aukera asetu ezin zuten gurasoak. Datorren urtean? Bi urte barru? Batek daki. Segurua dena da arazoak hor jarraituko duela.

Arazoa une honetan eta zuzenean guri egokitu zaigun arren, ez da arazo pertsonal bat, ezta puntuala ere. Arazoa Hernaniko Herriarena da. Hernaniko herriak ez du bere herritarron hezkuntza eskaera asetzeko adina baliabiderik. Kanpotik erabaki dute hori, Hezkuntza sailetik hain zuzen ere, baina Hernaniarrok pairatu behar dugu.

Arazoak ezin du honenbestez partxeo batzuen bitartez bere orretan geratu. Arazoari irtenbide oso eta iraunkor bat eman behar zaiola deritzogu.

Hernaniren arazo den heinean, Hernaniko udalak berea egin behar du arazo hau, eta konponbidearen bila buru belarri inplikatu behar da. Horrela ulertzen dugu eta horrela eskatzen diegu mozio honen bitartez Hernaniko udalean ordezkatzeko gaituzten zinegotziei.

Arazoa Hernanin, hezkuntza sare publikoan lerro berri bat irekitzearekin konponduko litzateke. Azken finean baliabide kontua da. Hezkuntza sailak baliabideak jarriko balitu arazoa konponduko bai litzateke.

Guzti hau kontuan izanik, honako eskariekin bat egitea eta eskari hauek egikaritu daitezkeen egin beharreko guztiak egin ditzan eskatzen diogu Hernaniko Udalari:

- 1.- Hernaniko herrian, Hezkuntza sare publikoko eskaintzaren baitan lerro berri bat zabaldu dadin. Benetan Euskal Eskola publiko, laiko eta kalitatezkoa izan dezagun Hernaniarrok.
- 2.- Aurten kanpo geratuko diren haurrentzat, Euskal Eskola Publikoaren sarearen baitan soluzioak eman ditzan hezkuntza sailak, beti ere gainontzeko ikasleen hezkuntza kalitatea kalte gabe eta Hernaniko ikastetxeek egun dituzten baliabide murrizak direla eta, gaitzagarri sortzeke, ez baitu balio edozein prezioan gure haurrak "kolokatzea" guztion kaltea sortuko bada.
- 3.- Konponbide hauek erabakitzerakoan, kontuan har dadila haurrentzat gurasoek aukeratu duten hezkuntza eredu.

Ondoren bestelako azalpenak eman ditu: Hezkuntza sailarekin bilera bat eduki dugu gaur, aurten ere beste "partxeo" bat egongo da. Badirudi kanpo gelditzen ziren haur horiek, nolabait, sare publikoko zentruetan kolokatuko dituztela; hitzak dira, eta ikusiko dugu horrela den ala ez, baina gure ustez arazoak bere horretan jarraitzen du. Iaz "partxeo" bat egon zen, aurten beste bat dago, eta datorren urtean beste baten bila joango dira eta ala adierazi digute gainera. Hortaz mozioa mantentze dugu, uste dugulako Hernaniren arazo bat dela; gure haurrentzako eskatu dugun hezkuntza eredu ez dugu lortuko, eta iraunkorki eta urteetan zehar mantentzen den arazo bat da. Horregatik eskatzen dizuegu zinegotzi guztiei, mozioarekin bat egin dezazuen eta gaurtik aurrera eta hurrengo urteari begira lan-ildo bat ireki dadin, lortu dezagun Hernaniarrok eskatzen dugun hezkuntza ereduari haurrak matrikulatu ahal izatea.

Jose Ramón Chica-k (PSOE) hitza hartu du: Ulertu dudanarengatik, gaur bilera izan dute Hezkuntza Ordezkaritzan, eta niri erantzun didatenarengatik, hara deitzeko lana hartu baitut, haur guztiak eskola publikora joango direla ziurtatu diete, guztiak. Hortaz, ez dut ulertzen ze kontu den ereduari

kontu hau. Nire ustez planteantzen ari den kontua ez da eredu publikoa ala pribatua, baizik eta ikastetxe zehatz batean lerro berri bat sortzeaz hitz egiten ari gara. Egia dena da Delegazioak ez duela sekula onartuko, dena dela ere agintean dagoena, ikastetxe publikoetan plazak egonda zentro batean lerro berriak irekitzea. Logikoa denez baliabideak optimizatu egin beharko ditu. Aukeraketari dagokionez, hara, nik ere esaten nuen, ikastetxe bat aukeratzen badute, logikoena da ikastetxe horretara joatea, eta esan didate: zuk mediku bat aukeratzen baduzu eta mediku horrek berrehun paziente baldin baditu, ezetz esango dizute, ondoko medikuarengana joan zaitezela, hura ere publikoa delako eta paziente gutxiago dituelako. Bada, horixe da hemen gertatzen dena, denoi gustatuko litzaiguke gure seme-alabak nahi dugun ikastetxera joatea, hala da. Baina ezin dena egin da haur guztiak ikastetxe batera eramateko beste bi ikastetxe publikoak ixtea, eta badirudi azken batean horixe dela urte batzuetik hona planteatzen ari dena, ikastetxe batean lerro berri bat sortzea, ikastetxe guztiak nola dauden begiratzea baino gehiago. Eta, gainera, mozioan ikastetxe pribatu bakarrez hitz egiten zen, erlijiosoak; zerbait garbi baldin badago da ikastetxe horretan bakarrik ari direla musulamanak, taoistak eta bestelako konfesioetakoak ikasten eta nahi duenak erlijioa hartzen du eta ez duenak nahi ez, ez da behartzen. Nik dakidala, erlijiosoak izango da, baina ez du praktikatzen. Ikastetxe horretan praktikatzen duena benetan praktikatu nahi duena da. Beraz, gurasoekin lortu bide duten akordioarekin, Delegaziokoek hala izan dela esan baitugute, guk ez dugu mozio hau babestuko, gure ustez ez daukalako zentzurik.

Gurasoetako batek hitza eskatu du: bueno, ni ez naiz sartuko argumentua rebatitzen, bakoitzak bereak ditu, baina bai gauza bat garbi gelditu behar duela: gaur ez da akordiorik egon, inposizio bat egon da.

Jose Ramón Chica-k (PSOE) hitza hartu du: Bada, hori da zuek uste duzuen. Niri esan didatena da akordio batera iritsi dela eta irtenbide bat lortu dela.

Gurasoetako batek hitza hartu du berriro: Ni egon naiz bileran eta akordiorik ez da egon, ez da planteatu akordiorako aukerarik, gure partetik ez da adostasunik eman. Inposizio bat egon da, aukera bakar bat eskaini da, eta horrela atera gara. Akordiorik egon dela ezin da esan. Hori behintzat argi geratu dadila.

Jose Ramón Chica-k (PSOE) hitza hartu du: Niri esan didate lortutako akordioa, edo inposaketa, gurasoek deitzen dioten moduan, izan dela 20 haurretatik 15 Elizatxo eta Urumea artean banatzea, han baitaude plaza libre, publiko eta laikoak. Eta gainerako bostentzat ikastetxe guztiei utziko zaiela orain dauden taldeak handitzen. Hau da, orain Hernanin bost lerro daude; bakoitzak 15 ikasle beharrean 16 izango ditu.

Kistiñe Lujanbiok (BILDU) hitza hartu du: ni gaur goizean bilera horretan egon naiz, ez da kontaktu didatena, gurasoek babes eskatu zutelako Hezkuntza Batzordean, ostegunean, Gobernu Taldean erabaki genuen lagunduko genielako bilera horretara, eta 12:30tan edo hasi den bilera, 14:15etan bukatu da. Bileran 3 pertsona egon dira, Gipuzkoako Teknikari bat eta kargu politikoak: Julen Bengoetxea delegatua eta Lakuako ordezkaria ere etorri da. Bileran guztian zehar egin duten babes ikaragarria Inmakulada ikastetxearena izugarria izan da; esanez denbora guztian, harea joango zirela soberan gelditzen ziren ikasleak. Soberan gelditzen diren ikasleak dira, herri mailan, lekurik ez daukatenak eskola publikoan. Egia da konzertatua, beraiek kontsideratzen dutela barruan sartzen dela, %98ko finantziarioa publikoa dauketelako, baina udal mailan adibidez, mantenimendu lanak egiteko, eta beste hainbat kontutarako ez ditugu kontutan hartzen, eta ez da bakarrik erlijioagatik. Inondik inora, ez du inor kuestionatu, udala gutxiago, baina gurasoek ere ez, ze ni beraiekin egon naiz, ikastetxe horrek egiten duen lan ona, ez doa hortik asuntua. Bileran guztian zehar horrekin egon diren bitartean, bukaera aldera, esan diete, eta ez da akordiorik, nik ziurtatzen dizut ez dela akordiorik egon, erabaki dutela azkenean, ikastetxe horietan sartzeko kanpoan gelditzen diren horiek, eta pozik egoteko, ez direlako azkenean Inmakuladara joango. Hitz horiek erabiltzen dituzte, eta erabiltzen duten aitzakia da gehienbat ekonomikoa, krisi garaian gaudela, eta ez dagoela dirurik inongo baliabiderik eskaintzeko: ez azpiegitura aldetik, baliabide materialak, ezta pertsonalak ere. Ezin dutela irakasle bat bakarra jarri ere

krisi garaian gaudelako. Arazo hau herri honetan ez da krisi garaikoa, oparotasun handia zegoen garaikoa baizik. Azkenengo 8 edo 9 urtekoa da. Jaiotza tasa Hernanin, ez dakit zehazki zergatik den, baina altua da, eta urtez urte 200 ume inguruko jaiotza dago, eta Administrazioak ezin dugu eskaini dagoena, bermatzeko obligazioa daukagu, eta kasu honetan Delegaritza da, eta ez du egiten. Urtez-urte inposizioaren bidea erabiltzen du eta ulertzen det gurasoek eskaera bat egitea udalari, herri mailan eskatzen dute erantzuna, eta uste dut, udalak baduela hemen erantzukizun bat, eta horregatik guk behintzat aldeko botoa emango dugu.

Jose Ramón Chica-k (PSOE) hitza hartu du: Niri esan didate lortutako akordioa, edo inposaketa, gurasoek deitzen dioten moduan, izan dela 20 haurretatik 15 Elizatxo eta Urumea artean banatzea, han baitaude plaza libre, publiko eta laikoak. Eta gainerako bostentzat ikastetxe guztiei utziko zaiela orain dauden taldeak handitzen. Hau da, orain Hernanin bost lerro daude; bakoitzak 15 ikasle beharrean 16 izango ditu.

Mozioa bozkatu da ondorengo emaitzarekin:

- * Aldeko botoak: 10 (9 BILDU eta 1 EAJ-PNV).
- * Kontrako botoak: 3 (EUSKAL SOZIALISTAK).
- * Abstentzioak: 1 (H1!).

Beraz, emandako botoak ikusita, irakurritako mozioa ez da onartu.

8.- ESKAERAK ETA GALDERAK. - Jose Ramón Chica-k (PSOE) hitza hartu du: Beste pleno batean hondakinen tratamenduari eta bilketari buruzko informazioa eskatu genuen idatziz. Hilaren 23an, ostirala, horren erantzuna izango dena-edo jaso dugu, hau da, lau lerro esanez gutxi gorabehera datu horiek publikoak direla eta guk bilatzeko. Nik, alkate eta udalbatza honetako lehendakari zaren aldetik, eskatuko nizuke, mesedez, Hernaniko Udala Garbitaniako akzionariatuaren zati garrantzitsua izanik, Garbitaniari ofizialki eska diezaiozula guk eskatu dugun informazio hori, ez baita guretzat bakarrik, osoko bilkura guztiarentzat da.

Alkate-lehendakariak hitza hartu du: Garbitaniak, bere kontuak ixten dituenean, urteko balantzea egiten duenean, dokumentazio hori udaletxera pasatzen du, publikoa da, horregatik esaten genuen hori begiratzea dela. Momentu honetan, 2011ko urtea itxi gabe dago eta horregatik ez dago oraindik. Baina hori itxi eta udaletxera iritsi bezain pronto, informazio hori bai da publikoa, hori zen erantzuna.

Bukatzeko Alkate-lehendakariak hitza hartu du: komentario inoportuno bat entzun dut, iruditzen zait, errespetu geixeorekin aritu behar dugula Plenoetan. Ordun ba mesedez, eskatuko nuke aurrerantzean behintzat, horrelako komentarioak norberak berarentzat gordetzea.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, 19:40 orduetan bilera bukatutzat eman da eta nik, idazkariordea naizenez, ziurtatu dut.